

GUATEMALA

Guatemala Amerika erdialdean kokatzen den herrialde bat da, eta jarraian bertan ematen diren gaixotasun infekzioso nagusiak aipatu, eta bidaiariok hartu beharreko segurtasun neurriak azalduko ditugu. Garrantzitsua da aipatzea segurtasun neurri hauek Euskal Herritik bidaiatzen duen jendeari zuzenduta daudela, Euskal Herriko gaixotasun endemiko eta txertaketa kanpainak kontuan hartuz.



Gaixotasun hauentzat klima garrantzitsua izaten da, agente infekzioso eta bektoreen agerpena baldintzatzen duelako, beraz azalpen txiki bat emango dugu. Herrialdearen erdialdean klima epela da urte guztian zehar, 15°C inguruko tenperaturekin. Kostaldean ordea, klima tropikalagoa da, hau da, beroagoa eta hezeagoa. Mendialdean, aldiz, giroa hotzagoa da. Maiatza eta urria hilabeteen tartean, eguraldia euritsua da, eta azaroa-apirila tartean, berriz, lehorra.

GAIXOTASUN ENDEMIKOAK:

Gaixotasun endemikoak dira herrialde edo zonalde batean prebalentzia altua duten eta kontrolatu behar diren gaixotasun infekziosoak, hau da, agente konkretu batek eragiten dituen gaixotasun kutsakorak.

Ura eta elikagaien bidez transmitituak: bidaiarien beherakoak izaten dira asko, patogeno desberdinek eraginda. Normalean automugatuak izaten dira eta hidratazioarekin nahikoa da aurre egiteko, baina kasu batzuetan konplikazioak azaldu daitezke. Huetako gaixotasun askotan arrautzak edo eragile infekziosoak askatzen dituzte gaixoek gorotzetan, eta ziklo fekal-oralaren bidez pertsonaz-pertsona transmititu daiteke infekzioa. Beraz, oso garrantzitsua da higienizazioa mantentzea, irazketa sistema eraginkorren bidez, kutsaketak ekiditeko, eta komunera joan ondoren eskuak behar bezala garbitzea.

- A hepatitis: birus batek eragiten du, eta gibela izaten da kaltetutako organoa.
- Sukar enterikoa/tifoidea: *Salmonella typhi* bakterioak eragiten du. Tratatzeko antibiotiko eraginkorrak daude.
- Listeriosia: *Listeria monocytogenes* bakterioak eragiten du.
- Helmintiasia: parasito desberdinek eragiten dute, eta huetako asko gure hesteetan txertatzen dira, arrautzak askatuz.

- Eskistosomiasia: Trematodoen klaseko eta *Schistosoma* generoko platelmintoek eragiten dute.

Intsektu/atropodoen bidez transmitituak:

- Malaria: *Anopheles* eltxo eme kutsatuaren bidez transmititzen da. Eltxo honek normalean gauean ziztutzen du. *Plasmodium vivax* da Guatemalan malariaren eragile infekzioso nagusia, baina beste espezie batzuk ere badaude. Odoleko eritrozitoak kaltetzen dira, eta sintoma adierazgarria (nekea, anemia eta abarrez gain) sukar paroxismoak izaten dira, hau da, ordu jakin batzuen buruan igo eta jaisten zaie tenperatura gaixoei (normalean 48 orduko zikloak izaten dira). 1500 metro baino gutxiagoko altitudeko nekazal lurraldeetan komeni da kimioprofilaxia erabiltzea, adibidez klorokina.
- Denge: *Aedes aegypti* eltxoaren ziztadak transmititzen du, eta *Flavivirus* arbobirusa da agente eragilea. Eltxo honek normalean goizez ziztutzen du, eta arropa zeharkatzeko gaitasuna dauka. Herrialde batzuetan txertoak garatzen hasi dira, beraz, komeni da informatzea mediku baten bidez ea zure bidairako gomendagarria den.
- Zika birusa: aurreko kasuan bezala, *Aedes aegypti* eltxoak transmititzen du. Gehienetan asintomatikoa da, eta bestelako sintomak inespezifikoak izaten dira. Ez dago tratamendurik.
- Rickettsiosia: *Rickettsia* generoko bakterioek eragindako gaixotasuna da. Genero honen barruan hainbat espezie sartzen dira eta sintomatologia desberdinak eragiten dituzte.
- Chikungunya: *Chikungunya* izeneko birusak eragiten du, eta *Aedes aegypti* eta *A. albopictus* eltxoek transmititzen dute. Artikulaziotako mina, sukarra eta abar ematen ditu. Tratamendua sintomatikoa izaten da, eta gehienetan sendatzen da.
- Sukar horia: Gaixotasun biriko akutu bat da, sukar hemorragikoa, flabivirus batek eraginda. Sukar horia deitzen zaio ikterizia ematen delako. Epidemia handienak ematen diren lurraldeek hainbat ezaugarri komun dauzkate: biztanle askoko gunek izaten dira, intsektuen dentsitatea oso altua izaten da, eta biztanleriaren gehiengoak ez du birusarekiko immunitaterik izaten. Tratamendu eraginkorrik ez dagoenez, txertoaren erabilera garrantzitsua da, eta baita gaixoak berrogeialdian jartzea ere.
- Chagas gaixotasuna: *Trypanosoma cruzi* parasittoa da gaixotasunaren eragilea, eta zimitz hematofagoen gorotzen bidez transmititzen da. Amerikako tripanosomiasia bezala ere ezagutzen da, eta batez ere landatar guneeetan eta giza baliabide gutxiko lekuetan ematen da.
- Leishmaniasia: *Leishmania* espezieko protozoook eragiten dute, eta bektorea Amerikan *Lutzomyia* flebotomo emea izaten da. Leishmaniasi mota ezberdinak daude, baina Guatemalan ohikoena azaleko leishmaniasia da.

Normalean papula ultzeratu bat besterik ez da agertzen. Kasu honetan gordailu garrantzitsua izaten da txakurra, eta beraz komeni da animalia hauek kontrolatzea, eta gizakiarekin kontaktua ekiditea.

- Filariasi linfatikoa: Nematodoek eragindakoa da. Ameriketan gaixotasuna transmititzen duena *Wuchereria bancrofti* da, *Culex* eltxoen bidez. Asaldurak eragiten ditu sistema linfatikoan, linfedema kroniko batean bilakatu daitekeena. Tratamendu eraginkorra dago.

Pertsonaz-pertsona transmititzen direnak:

- Trakoma: *Chlamydia trachomatis* bakterio intrazelularrak eragindako gaixotasuna da. Mundu mailako itsutasun infekziosoaren kausa nagusia da.
- Tuberkulosia: *Mycobacterium tuberculosis* baziloa da eragile nagusia. Biriketan sortuko du kaltea nagusiki bakterio honek eta ondoren, gainontzeko organoetara zabaldu daiteke. Herrialde gehienetan kontrolatuta dagoen gaixotasuna da.

Animali bidez transmititzen direnak:

- Amorrua: animalien hozkadaz transmititzen da. Nerbio sistema zentrala kaltetzen du. Prebentziorako txertoa gomendatzen da, arrisku zonalde batera bidaiatu baino hilabete bat lehenago.

SEGURTASUN NEURRIAK:

- Higienea: eskuak garbitu maiz, ura eta jaboiarekin ez bada, mikrobio kontrako gel batekin.
- Gauzak ondo sukaldatuta jan, eta fruta zurituta.
- Ura botiletan datorrena (etiketa fidagarria duena) edo aurretik irakindakoa edan, eta izotzarekin ere kontuz ibili.
- Ez ibili edonon oinutsik.
- Ez bainatu edozein uretan.
- Moskitoen hozkadak ekiditeko:
 - Arropa luzea eta kolore argikoa erabili.
 - Uxatzaile kimikoak DEETrekin arropan, gorputzean eta moskiteratan.
 - Lo egiteko moskiterak.
 - Bentiladoreak edo aire girotua erabili.
 - Gauetan logela eta etxeetako leiho eta atea itxi.
- Kalitate txarreko etxeetan lo egitea ekidin.
- Ur geldoko tokien inguruak ekidin.
- Animaliak (oilok...) etxebizitzatik urrundu.
- Txertaketa erabili bidaiatu aurretik.

Txertoak:

- Nahitaezkoak: Sukar horiaren aurkako txertoa hartu beharko dute urte bete baino nagusiagoak diren pertsona guztiek, bai herrialdea bisitatzeko, eta baita ere aireportuan 12 ordu baino gehiago egoteko (eskala eginez).
- Oso gomendatuak: Urtaroko Influenzaren aurkako txertoa eta baita elgorriaren aurkakoa. Elgorriaren aurkako txertoa Osakidetzako umeen txertaketa egutegian dago.
- Gomendatuak: A eta B hepatitisaren aurkakoa, txerto triple bakterianoa (difteria, tetanos, kukutxeztula) eta sukur tifoideoaren aurkakoa. Txerto triple bakterianoa eta B hepatitisarena Osakidetzako txertaketa egutegian daude. Animaliekin kontaktu luzea izango duten pertsonen kasuan, amorruren aurkako txertoa hartzea ere gomendatzen da.

BIBLIOGRAFIA

- Guatemala riesgos locales - información sobre riesgos locales sanitarios y de salud útil para viajeros, turistas y profesionales [Internet]. Fundacionio.org. 2020 [2020ko martxoaren 24n kontsultatua]. Eskuragarri: <http://fundacionio.org/viajar/paises/america/guatemala%20riesgos.html>
- Guatemala [Internet]. Clínica del Viajero, UNAM. 2020 [2020ko martxoaren 24n kontsultatua]. Eskuragarri: <http://clinicadelviajero.com.mx/2015/05/22/guatemala/>
- Viajar a guatemala | A VIAJAR GUATEMALA - Antigua | Tripadvisor [Internet]. Link-de.com. 2020 [2020ko martxoaren 24n kontsultatua]. Eskuragarri: <https://www.link-de.com/search/viajar-a-guatemala>
- Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social - Profesionales - La salud también viaja - Consejos para el viajero [Internet]. Mscbs.gob.es. 2020 [2020ko martxoaren 24n kontsultatua]. Eskuragarri: <https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/sanidadExterior/salud/consejosViajero.htm>
- Cooperacion P, SISTEMAS DE INFORMACION P, Transmisibles E, Transmisibles E. OPS/OMS Guatemala - Enfermedades Transmisibles | OPS/OMS [Internet]. Pan American Health Organization / World Health Organization. 2020 [2020ko martxoaren 24n kontsultatua]. Eskuragarri: https://www.paho.org/gut/index.php?option=com_content&view=article&id=500:enfermedades-transmisibles&Itemid=405
- CDC - Malaria - Travelers - Malaria Information and Prophylaxis, by Country [Internet]. Cdc.gov. 2020 [2020ko martxoaren 24n kontsultatua]. Eskuragarri: https://www.cdc.gov/malaria/travelers/country_table/g.html
- [Internet]. Mscbs.gob.es. 2020 [2020ko martxoaren 24n kontsultatua]. Eskuragarri:

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/sanidadExterior/salud/pdf/virus_Zika_diciembre2015.pdf

- Guatemala [Internet]. Es.wikipedia.org. 2020 [2020ko martxoaren 24n kontsultatua]. Eskuragarri: <https://es.wikipedia.org/wiki/Guatemala#Clima>

EGILEAK:

Amaia Gorrotxategi

Elene Indo

Ainhoa Aranburu

Nora Remesal

Ilargi Zipitria